



## Frantxoa Maitia

Izpura, 1952 (Nafarroa Beherea). Frantziako Alderdi Sozialistako (PS) kidea da. Akitaniako Kontseiluko lehendakariordea eta Departamenduko Kontseilu Nagusiko hautetsia. Bere herrian irakaslea eta auzapez izana. Bordele, Paue eta Baionan ari da politikagintzan. Ez du geroan Parisen diputatu izatearen ideia baztertzen.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Gaizka Iroz

# «Estatuaren ardurak ttipitzen ari dira Nicolas Sarkozyrekin»

Ipar Euskal Herriko Alderdi Sozialistako (PS) burua da. Alderdian ez diote bidea errazten, alta. Esaterako, Frantziako Asanblea Nazionalan diputatu izateko lehia gogorrak izan ditu: “2007an hautagai izan nintzen alderdian. Departamenduko buruzagiak ez ziren ados, ene desmarta arras trabatu zuten, tranpak egiten zituzten. Henri Emmanuellik moztu zidan bidea. Militanteek nire alde bozkatu zuten, halere. Haien aukera ez zen ona izan, ordea. Nik aurreko bozketan bildu nuen bozen %6 gutxiago bildu baitzuen hautagaiak” erran digu Frantxoa Maitia. Lionel Jospin lehen ministro ohiaren ildokoa da Maitia. Emmanuelli aldiz, Jospin-en lehia-kidea izan da PSn”.

**Martine Aubry da PSko idazkari nagusi berria. Lehia gogorra izan da, eta alderdia zatitua dela aipatu da. Nola bizi duzu alderdiaren egoera?**

Hauteskundeen aitzinetik, alderdiko lau sektoretarik hiru bateratuta ziren François Hollande idazkari nagusi ohiaren gerizpean: Aubry, Delanoë [Maitiak Delanoë sostengatu du] eta Royal. Zatiketak nahasakeriak sortu ditu alderdian. Egia da,

**“Martine Aubry alderdia gobernatzeko maneran ikusten dut, baldin eta abilki jokatzen badu, bistan da”**

bakoitzak gehiengo osoa ateratzea pentsatu zuen alderdia handizki gobernatzeko. Orogen buru, kongresuan ez da adostasunik izan, baina indarrak ez dira aldatu eta alderdia ez da arras zatituta. Aubry alderdia gobernatzeko maneran ikusten dut, baldin eta abilki jokatzen badu, bistan da.

**Alderdia krisian dago, irudiz.**

Beno... Oinarrizko kide sozialistek alimaleko atxikimendua diote alderdiari, horrek salbatzen du PS. Frantzian eskuinari ihardukitzeko alderdi bakarra PS ote den sentimendu azkarra dago. Frantziarrek biziki sufritzen dute oraingo politika txarra dela-eta: soldatek indarra galdu dute, zerbitzu publikoak peko erre-

kara joaten ari dira. Horrek arrangura anitz sortu du. Badago aldaketarako gutizia. Alderdi Sozialista azkarra ez bada, nor ekar dezake aldaketa Frantzian?

**François Mitterrand presidente garaiko Jacques Delors ministroa zena alaba da Martine Aubry. Nola oroitzen duzu orduko politika?**

Nik Jacques Delors ezagutu nuen diputatu kargurako lehen aldikoz aurkeztu nintzenean, 25 urte nituen. Delors bera jin zitzaidan Garazira sostengatzera. Finantzen ministroa zen. Euskal Herriarendako desmar-txa berriak sortzea proposatu nizkion. Herrikoa elkartea ekonomia-ren sustapenerako sortu berria zen. Estatua Herrikoari diru laguntza azkarra emateko ados agertu zen. Ideia ez zen gauzatu, anartean Garapen Kontseiluaren sorrera eztabaidan baitzen. 1982 urtea zen, Departamenduaren eskaeraren aiduru ginen, baina Mitterrandek ezin izan zuen agindu zuena bete.

**Estatua deszentralizatzeko bidea moztua geratu zen nolabait.**

Bai. Mitterrandek Deszentralizazio Legea egin zuen Departamendueta-ko presidenteei botere handiagoa

emateko eta prefetak kentzeko. Hemen, Departamenduko buruzagiek desmar-txa geldiarazi zuten, presidentek ez zuen nahi inola ere Euskal Herriko Departamendua eraikia izan zedin, RPRko eskuindarra zen. Mitterrand presidentearekin deszentralizazioa bideratzeko anitz neurri hartu ziren alta. Egungo Gobernu- eta botereak berri ere azkarki baztertzen ari direnak. Orduko Gobernuak, adibidez, Justizia Auzitegia zabaldu zuen Donapaleun, Sarkozy presidentek berriki kendu diguna.

**1982an, PS boterera heldu zelarik, sozialismoa gauzatzea posible ikusi zenuten halaber.**

PSn sartu nintzenean kapitalismoa peko errekarra joanen zela aipatzen zen. Baliabide iturriak ttipituz kapitalismoa geldiaraziko genuela erraten zen, bizpahiru urteren buruan eroriko zela. Mitterrand presidentea izanik ere, kapitalismoak zutik segitzen zuela ohartu ginen. Sistema biziki hertsia zen eta sozialistoi politika finkoa kudeatzera behartu zitzaigun. 1982an, Laurent Fabius lehen ministroa izan zelarik alternatiba berriak eztabaidatu ziren. Oneski erranik, sozialistok ez dugu sistema argia asmatu, oraino asma-

tzeko dago. Orain, kapitalismoa berri ere krisian dago eta sozialistok Gobernuari Frantziako Estatuak kenka larriari aitziki egitea eskatzen diogu, herritarren zergak ongi bilduz eta dirua ongi partekatuz. Alabaina, Estatua ez da aski azkarra, Europako estatu guztiak sistema batean bildu behar direla dioguk. Krisi garaian botere publikoek indar handiagoa hartzeko aukera dute, horrek gisa bateko sozialismo baten alde borrokatzeko gogoia eman beharko liguke. Agian, berri ere, sozialistok beste aukera bat ukanen dugu.

**Bakarrik nekez gauzatuko dena. Askotariko Ezkerra landu zen iraganean. Egingarria ikusten duzu orain?**

Aldaketa izan dadin ezkerra bozkatu behar da, hasteko. Ezker hori ez da denen gustukoa izaten, baina eskuinarekiko diferentzia agerikoa da. Sozialistok ezkertiar guztiak ideia hori garbi izan behar dutela diogu: ekologistek, komunistek, LCRk eta erradikalek eskuinaren alternatiba bateratua prestatu behar dugula, hots. Maleruski ezkerreko parte batek ez du gobernatu nahi, ezkerrearen ideia akuilu bezala erabili nahi du. Baina ideiak bakarrik ez dira aski, ideiak aplikatu behar dira. Gu gobernatzeko erantzukizuna hartzeko prest gaude. Ni ezkerreko lagunak konbentzitzeko programa bateratu eta landua osatzearen aldekoa naiz, sozialismoaren bidean aritzeko eta herritarren bilgune alternatiboa muntatzeko.

**Departamenduaren eskaerara jinez, Ipar**

**“Euskal Herriko lurraldearen kudeaketa biziki aitzinatu da. Egia da, desmar-txa ez dela duela hogeitau urte abiatu zenean espero genuen bezain fite joan, baina asmoa sakonagoa da egun”.**



**Euskal Herriko sozialista guztiek ez dute zure jarrera bera.**

Ez. Alta, Iparraldeko federazio sozialista gero eta gehiago ari da Euskal Herriari begira. Estatuarekin sinatutako kontratuetak anitz ideia eta asmo Lionel Jospinen garaitik heldu dira. Euskal Herriko lurraldearen kudeaketa biziki aitzinatu da Garapen Kontseiluaren bitartez. Egia da, desmartxa ez dela duela hogeitau urte abiatu zenean espero bezain fite joan, baina asmoa sakonagoa da egun. Jendearen espirituetan gero eta indar gehiago hartu du Euskal Herriko 2020 izeneko egitasmoak.

**Akitaniako Kontseiluak diru laguntza ekarri dio Euskal Herriko Laborantza Ganbarari (EHLG). Hainbatek harri-duraz hartu du laguntza hori.**

EHLG elkarte juridikoa da, ez elkarte publikoa. Duela bi urte ere Ganbara honek uraren gainean aurkeztu proiektu bati 500 euroko laguntza eman zitzaion. Orduko ekarpena txikia izan zen. Prefetak ez zigun inolako oharpenik egin. Ez dela lagundu zaion lehen aldia erran nahi dut. EHLGk laguntza eskatu izan digunean oposizio tinkoa izan da Akitaniako Kontseiluan, prefetak ere ez genuela lagundu behar erran du. Aldi honetan, Alain Rousset presidentea EHLGko buruekin bildu zen Bordeleko Laborantza Feria handiaren kariatara. Elkarreak aurkeztutako asmoak ongi zehaztuak izanez gero Kontseiluak laguntza ekar diezaiokeela erran zuen. 96.000 euroko laguntza ez da elkar-tearen funtzionamenduarentzat emana, proiektu zehatzendako baizik. Etxaldean instalazioak eta men-

diko laborantzako sor-marka ziurtatzeko tresneriak lagundu ditugu, gauza praktikoak dira.

**Zer iritzi duzu Laborantza Ganbaraz?**

Gauza oso interesgarriak ari da egiten. Ekimen eta ideia funtsezkoak ekarri ditu dinamika handia sortuz. I. Biltzar Nagusitik parte hartu dut eta Mixel Berhokoirigoin presidenteari ene sostengua ekarri diot.

**"Nire ekimen politikoa eta publikoa defentsa moduan planteatzen ditut.**

**Krisiarekin Estatuareago zentralizatzen ari da"**

**Azpiegiturek hizpide. Zer berri da Abiadura Handiko Trenaz (TGV)?**

Akitaniako Kontseiluak TGVren alde bozkatu du. Azpiegiturea hau egiten ez badugu Europako erdigunetik urrun geratuko gara, Espainian egiten ari diren obrei ez badiegu segida ematen baztertuak. Gure eskualdeari aitzina hartzea zegoen, baina Frantziak gibelatze handia hartu du. Kontseiluan erran nuen aspaldi, Hegoaldetik AHT jinen da hemen pikotx ukaldi bat eman gabe.

**Baionan geltokirik izanen al da?**

Bordele eta Tolosa arteko [Okzitaniako Tolosa] ibilbideak dauka lehentasuna. Geltoki bat Mont de Marsanen izanen da ziur eta beste bat Ipar Euskal Herrian. Non izanen den ez da zehaztua. Baionan? Baiona ondoan? Hor nonbait. Eztabaida ez da finkatua. TGV nondik pasako den baino

nola finantzatuko den ez da oraino ere eztabaidatua. Tours-Bordeleko ibilbidearen finantzamendua baino ez da finkatua. Estatuak ibilbideak finantzatzeko tokiko eskualde, departamendu eta hiri handietako kontseiluei diru laguntza eskatu digu. Nehork ez du ukatzen laguntzea, baina zein proportzioan ordaindu behar dugun ez da garbi ikusten. Guk azpiegiturek Estatuaren kompetentzia direla diogu, Estatuak beharko lituzkeela pagatu. Estatuak aldiz zinikoki hau erran digu: "Ez baduzu sosa jartzten ez duzue TGV ukanen". Jarrera onartezina da. Estatu bere burua ari da ttipitzen Sarkozyren eskutik, ez ditu aginpideak bere gain hartu nahi, Estatuak bere burua uzkurdu du eta bere ardurari uko egin dio.

**Frantziako Estatuareago zentralista ageri da krisi garaian.**

Orokorki Estatuak borroka bide bat zabaldu du tokian tokiko kontseiluen aurka. Politika publiko guztiak aztertzen ari da ekonomian bide berriak atzemateko, beste moldetan antolatzen. Ni mendiez eta oihanez arduratzen naiz Akitaniako Kontseiluan, eta sail honetara ere erreformak heldu dira, baita Merkatal eta Laborantza ganbareta eta beste erakunde publiko askora ere. Akitaniako Kontseiluan hauxe errana dut: Euskal Herria ezin dugu erakunderik gabe utzi. Erreforma handia edo ttipia izanda ere, ezin dizkigute gure zerbitzu publikoak kendu, atxiki behar ditugu fermuki. Nire ekimen politikoa eta publikoak defentsa moduan planteatzen ditut. Krisiarekin Estatuareago gehiago zentralizatzen ari da. Gibelera goaz. ■

